

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2018/11/27

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Errekatxuko auzotar batek salatu du 11 zenbaki pareko edukiontzien inguruan dagoen zikinkeria. Adierazi du jendeak ez duela behar den moduan jokatzeko eta eskatu du edukiontzia lekuz aldatzea, Sansaburu alderantz.	Mankomunitateak desugertzeko makina pasatu zuen inguru horretatik. Bestalde, kalearen konfigurazioa dela-eta, bilketa-kamioia behartuta dago kalean atzera-martxan sartzeko Araneko bidetik Errekatxura, eta, hortaz, ezin da haren kokapena aldatu.
Zerbitzuak	Salatu du Errekatxuko bidea, 15 zenbakiaren inguruan, sasiz beteta dagoela.	Jabeei eskatu zaie bide publikoa oztopatzen duten sasiak kentzeko. Hala ere, Udalak garbitu egin zituen gune publikoan zeuden sastrakak, bai espaloian, bai horman.
Zerbitzuak	Eskatu du auzoko espaloiak txukuntzea. Dioenez, zikin daude eta berdiña dute.	Errekatxu inguruko garbiketari ekin zaio falch-makinarekin. Gainera, inguru horretan ohiko garbiketa astean 6 aldiz egiten da.
Zerbitzuak	Kexu da Errekatxuko iturria egoera tamalgarrian dagoelako..	Iturria garbitu zen eta falta ziren harri batzuk konpondu dira.
Zerbitzuak	Salatu du kiosko ondoko horma zikina dagoela.	Garbitu zen aipatutako horma.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio Urki eskolako ezponda sasiz garbitzen denean hondarrak han lagatzen direla.	Lanak martxoaren lehen astean egin zen.
Zerbitzuak	Eskatu du orkidea batzuk landatzea Urki eskolako ezponda inguruan.	Dagozkion azterketak egin ostean, lorezainek jakinarazi zuten ez dutela egokia ikusten bertan orkideak landatzea, esparruak ez dituelako horrelako loreak hazteko baldintzak betetzen.
Obrak	Eskatu du iturriko espaloi gainean bisera bat sortzea.	Ez da beharrezkotzat jotzen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2018/11/27

Saila	Laburpena	
Obrak	Txaltxa Zelai 2 zenbakiko bizilagun batek salatu du hezetasunak dituela bi gelatan.	Ikuskaritza egin zen eta ondorioa izan zen eraikinaren kontu bat zela eta ez zela udalaren ardura.
Zerbitzuak	Urki beheko eta Polonia Etxeberriako espaloiak konpontzea eskatu du, zenbaki bikoiti eta bakoitietan. Oso egoera txarrean omen daude.	Tratamendu bat eman zitzaien irristakorrak egon ez daitezten. Dagoen zikintasuna presiozko urarekin garbitzen saiatzen da.
Zerbitzuak	Salatu du kiosko inguruan arratoiak daudela.	Arratoigabetzeko arduradunari abisua eman zitzaion, eta hark jarduketa bat egin zuen inguruan abisua jaso ondoren. Nolanahi ere, 2019ko otsailean, arratoiak akabatzeko jarduketa bat egin zen, udalerrri osoan.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Salatu du txakur-kaka pila bat daudela auzoan eta eskatu du sistema bat txakurren jabeak lokalizatzeko.	Animalien ordenantzak edo garbitasunari buruzkoak urratzen dituzten pertsonak antzematen diren bakoitzean, salaketa jartzen zaie.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du parkerako sarbidean dauden eskailera-mailak kentzea, Polonia Etxeberria inguruan.	Hiru sarbide daude parkera, eta guztiek dituzte eskailera-mailak. Pasabide goratuak egiteko obrekin, dagoeneko martxan daudenak, arrapala bat egingo da Ubitxa eta Polonia Etxeberria arteko bidegurutzean dagoen zebra-bidearen ondoko sarbidean. Beste sarbideetan arrapalak ez luke araudia beteko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2018/11/27

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Salatu du kotxeek jarraitzen dutela aparkatzen Polonia Etxeberriako espaloi berrian.	Inguru horretako konfigurazioa dela eta, ibilgailu batzuek aparkatzen dute espaloia partzialki okupatuz. Ibilgailu bat antzematen denean oinezkoei pasabidea eragozten, salaketa jarri eta garabiarekin erretiratzen da.
Zerbitzuak	Polonia Etxeberria 26ko bizilagun batek adierazi du zanga bat zabaldu zela etxe ostean hodi bat sartzeko eta ez denez ondo itxi arratoi-habia bihurtu dela.	Gipuzkoako Urak ari zen lanean gunen horretan; eta jakinarazi zuen zanga hori otsailaren erdialdean estali zela. Gainera, arratoigabetzearen arduradunari abisua eman zitzaion jarduketa bat egin zezan inguruan, arazoa konpontzeko.
Zerbitzuak	Errekatxuko bizilagun batek dio espaloian baldosa batzuk apurtuta daudela eta ingurua labain dagoela.	2019ko ekainean, baldosak konpondu egin ziren.
Zerbitzuak	Polonia Etxeberria 18 zenbakiko bizilagun batek dio barandetako bat apurtuta dagoela eta zulo handi bat dagoela behealdean.	Ingurua aztertu ondoren, ikusi zen baranda ondo zegoela; dena den, eskatu da berriz ere aztertzea. Halaber, ikusi zen baldosaren bat apurtuta zegoela osteko horman eta dagoeneko konpondu dira.
Zerbitzuak	Salatu du arrakala bat ireki zela igogailua kioskoarekin lotzen duen espaloiko horman eta, dioenez, hezetasuna dago.	Zerbitzuetako teknikariak eta udal Lantaldeko arduradunak ikuskatu ondoren, jakinarazi zuen ez zela inolako arrakalarik ikusi inguruan.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du kotxeek etxeen kontra aparkatzen dutela Ubitxa 4 aldean, baita aparkatzea debekatuta badago ere.	Adierazitako lekuan aparkatzea baimenduta dago; ez dago hori egiteko eragozpenik.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2018/11/27

Saila	Laburpena	
Obrak	Ubitxa 4 zenbakiko bizilagun batek galdetu du ea eraiki litekeen igogailu bat inguru horretara iristeko. Esan du irisgarritasun-arazoak dituztela.	Irisgarritasun-arazoa konponduko da Ubitxa eta San Kristobal artean egingo diren igogailuekin; obra 2020rako dago aurreikusita.
Hirigintza	Salatu du Potosioren eraikina egoera txarrean dagoela.	Aurreikusita dago eraikina dagoen inguru hori botatzea eta kalea zabaltzea. Enpresa promotore bat ari da eremua kudeatzea eta hura da eraikina mantentzearen ardura duena. Bere sasoian, eraikinak arazoak izan zituen barruko forjatu batekin eta promotoreei segurtasun-neurriak eskatu zitzaizkien; horrekin egonkortuta geratu zen.
Zerbitzuak	Kexu da Eibarren zaborrekin dagoen arazoaz.	Mankomunitatetik uste du birziklatzen ez den frakzioko edukiontzietan pedaleko sistema aplikatzeak arazo hori murriztea ahalbidetuko duela. Dena den, herritarren gizabidean eragin behar da.
Alkatetza	Jakinarazi du Polonia Etxeberria kalearen izena jasotzen duen plaketako bat gaizki idatzita dagoela.	Aldatu da.